

---

# Osotasunean landu ezean, beti herren

Larrarte, Joanmari

Elkar Fundazioa  
jmlarrarte@elkar.eus

---

# E

---

Euskararen egoerari begiratzetik abiatuta, egiten da hizkuntza politika oso baten aldeko aldarria. Adierazten da orain arteko bidean plan oso baten falta izan dela, hezkuntzaren bidezko euskalduntzeak euskararen normalizazioa ekarriko zuela uste izan dela, eta egiteko modu horiek gaindituaz, eremukako neurriak gainditu eta osotasuna hartuko duen hizkuntza politikaren beharra, zeina gizarte eragile eta administrazioaren artean landu beharko den. Bigarren partean, kapital kulturalaren lanketarako proposamen zehatzak egiten dira, adierazitako plan oso horren lanketarako baliagarri izan daitezkeenak.

**Giltza-hitzak:** Hizkuntza politika. Hezkuntza. Soziala. Erabilera. Normalizazioa.

Euskararen etorkizuna dugu jokoan eta horrekin batera Euskal Herriarena, gure ustez behintzat, lehena gabe zaila bailitzateke irudikatzea izaera propioa izango duen herri berezitu bat besteen aldamenean. Edonork esan dezake hizkuntza bakarrik ez dela herri bat egiten duen ezaugarria, ez dela herri izateko arrazoi nagusia, badirela hizkuntza bera duten herri ezberdinak eta guk ez diogu ezetz esango; are gehiago gure ustea da herri izateko nahikoa litzatekeela elementu bakarra: komunitate jakin batek elkarrekin erabakitzea herri bat osatu eta bere egitura propioa eratu nahi duela, era batekoa edo bestekoa izanda egitura hori.

Kolektiboen erabakitze gaitasuna eta erabaki hori kolektiboan bertan zein handik kanpo errespetatzea nahikoa beharko luke izan herri gisa egituratzeko. Baina horrekin batera nork bere ezaugarriak ditu, eta hizkuntza propio bat oinarrian duenak hura du ezaugarri nagusietakoa –ez bakarra, bai nagusienetakoa–.

Bada beste ideia bat, gure ustez garrantzi handikoa, herri gisa hizkuntza propioaren gainean dugun erantzukizuna. Galtzeko arriskuan egon daitekeen hizkuntza bat duen herriak, hizkuntza hori ondare bizia den neurrian, badu hura zaindu, garatu eta biziberritzeko erantzukizuna. Euskal Herriak eta euskal herritarrok betebeharrak dugu, hizkuntza eta kultura

oso bat gal ez dadin; hura zaindu eta garatzeko eginkizuna dugu, zerbaiten jabe izateak haren garapena ziurtatzea ere ekarri behar baitu berekin.

Euskararen etorkizuna ez dago bakarrik gure esku, kanpoko indarrek ere eragin handia dute eta asko baldintza dezakete, orain arte egin izan duten bezala, baina hori ez da arrazoia guk geure egitekoak bazter ditzagun. Gaur egun, euskarak ez du ziurtatuta iraupena, eta gaur egungo Euskal Herriari dagokio, zailtasun guztien gainetik, etorkizuna ziurtatzea, hizkuntza gal ez dadin eta Euskal Herria euskalduna izan dadin. Euskal Herriko administrazioei, era guztietako eragileei –eragile politikoak, sozialak, ekonomikoak, kulturalak...– eta norbanakoei dagokie (dagokigu) hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko lan egitea. Ez dute guztiek erantzukizun bera, hori ez, baina, bakoitzak dagokion erantzukizuna hartuta, denon egitekoa da. Administrazioarena da lehen eginkizuna lege babesaren antolatutako behar duelako, baina ondoren eragile guztiek bere eragin ezean, zaila izango da normalizaziorako bidea, ezinezkoa ez esateagatik.

“Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen e5” ekimenaren bidez hori nola gauzatu aritu gara aztertzen eta **etorkizunerako amestutako eszenarioen konstelazioa irudikatzea** izan da jarritako eginkizuna. Lan hori komunitatearen kapitalen lanketarekin abiatu zen, kapital horietako bakoitzaren baitako helburua definitu (giza kapitala, kulturala, politikoa, ekonomikoa...) eta hura lortzeko aktibo edo baliabideak identifikatzea izan da egitekoa.

Kapital kulturalen lanketatik abiatuta, 2040rako irudikatutako jomuga lortzeko egin beharreko bideaz proposamena egitea dagokigu, eta horretan saiatuko gara, gogoeta orokor batetik abiatu eta aktibo nagusiak lortzera bideratutako hainbat ildo ere aurreikusiz.

## 1. Osotasunak izan behar du abiapuntu, partikularra iristeko

Kapital kulturalaren baitan marraztutako etorkizunerako proposamenak egin aurretik ezinbestekoa da gogoeta zabalagoa egitea, benetako urratsa egin nahi bada, ezinbestekoa baita euskararen garapena eta normalizazioa ekarriko duen plan orokor bat egitea. Maila sozioekonomiko, politiko eta kultural guztietan hartu behar dira neurri eraginkorrak Euskal Herria euskalduna, euskaraz biziko den herria, lortu nahi

badugu; ezinbestekoa da plan osoa egitea, administrazio eta gizarte eragileen artean –eragile sozialak, ekonomikoak, politikoak, kulturalak...– ; normalizazioak eremu guztietan eragitea eskatzen du, dena osotasunean hartu ezean ezin baita benetako urrats sendorik eman eta helburuak lortu.

Urteetan egindako lanak emaitzak ere eman dituen ukatu ezina da<sup>1</sup>, baina emaitza horiek ez nahikoak direla eta orain arteko ekinaren mugak agerian geratu izana ere agerikoa da. Gaur arte ez dugu jakin izan herri gisa lortu nahi dugun helburua definitzen, eta etorkizuneko egoera hori irudikatzen, “urratsak egitea” izan ohi da markatzen den helburua, eta horrela nekez egin daiteke plan oso bat. Gainera, urratsik gehienak norbanakoaren baitan egin dira, hizkuntzaren normalizazioa norbanakoei ikasi eta erabiltzearen baitan bailegoen, eta hori ez da nahikoa. Ondorioz, urratsak egin ahala, ezinak ere agerian geratu zaizkigu.

Adibidez, orain arteko ibilbidearen ezinak argi ikus ditzakegu eskolaren gainean jarri den “itxaropena” abiapuntu hartuta. Hezkuntzak behar zuen izan oinarri, eta gazteak euskaldundu ahala, euskarak aurrera egin behar zuen, horrek ekarriko zuen hurrengo belaunaldiak euskalduntzea eta euskal gizartea euskalduntzen joatea. Abiapuntu oker bat izan zuen oinarri horrek, ez zen haur guztiak euskalduntzeko neurririk jarri, inondik ere euskaldunduko ez zuten hizkuntza ereduetan ere ikasteko aukera zabaldu zen eta. Hasiera hasieratik zegoen argi gerora ere euskara jakingo ez zuen jendea izango zela, eta egoera horrek euskararen erabilera zailduko zuela.

Eta horrekin batera beste oker nagusi bat izan dugu, pentsatzea belaunaldi berriek euskara ikasi ahala, euskararen normalizazioa berez etorriko zela eskolan euskalduntutako haur eta gazte horiek heldu ahala<sup>2</sup>. Eskolak edo hezkuntza arautuak izan arren baliabideak gazteak euskara ikas dezaten, ez zen kontuan hartu, euskalduntzea hori baino modu zabalagoan egin behar dela, eta eskolarekin batera inguru osoa euskalduntzen joan behar zela: aisialdia; lagun artea; etxeko giroa; lan giroa, behin eskola bukatu ondoren euskaraz lanean hasteko aukera izateko... Azken batean, eskolatik ateratakoan, gainerako ingurua ez bada euskaraz bizi, zaila da euskara erabiltzeko aukera errealak izatea. Nolabait esatearren, irudikatu izan da norbanakoei euskara jakitea nahikoa dela gizartea euskalduntzen joateko, eta norbanakoengan utzi da erantzukizuna. Bai, jarri izan dira martxan hainbat egitasmo eta ekimen eskolaz gaindi ere, baina ez dugu plan oso eta

bateratu bat izan, momentuan ikusitako hutsuneei nolabait aurre egiteko ahaleginak egin dira eta egiten ari gara.

Urteetako ekimen oso handiaren ondorioak poztekoak bezain kezkatzekoak dira. Bai, duela urte batzuk baino euskaldun gehiago dago estatistiken arabera, baina euskaldun horietako askoren maila ez da nahikoa euskaraz bizitzeko, eta hezkuntzan egiten diren azterketek gero eta emaitza kezagarriagoak ematen dituzte. Agerikoa denez, hezkuntzak bakarrik ezin du gizartea euskaldundu, are gehiago, hezkuntzak bakarrik ezin du lortu ikasteko adinean diren haur eta gazteak euskalduntzea ere.

Euskararen erabilera nahi baino eskasagoa da eta, horren aurrean hartzen ari garen jarrerarekin, beldur gara lehen egin genuen akats bera errepikatuko ez ote dugun. Dudarik gabe, erabilera azkartzea ekarriko duten ekimenak behar ditugu, baina horiek hizkuntza politika oso baten barruan diseinatu behar dira. Jakina da erabilerarako benetako aukera izateko, ezinbestekoa dela ezagutzaren unibertsalizazioa, pertsona guztiok oinarritzko ezagutza maila izatea (gutxien gutxienez ulertzea). Horrek abiapuntu izan beharko du, baina ikuspegi sozial batek eskatuko digu, hizkuntzaren ezagutzarako bideak jarri ahala, garai berean, euskaraz bizitzeko eremuak sortzen joatea –lanean, aisian, etxean...–, bestela erabilera ezinezkoa izango baita, eta berriro ere norbanakoaren baitan utziko baitugu erantzukizuna.

Beraz, unea da orain arteko bidearen mugez ohartu eta euskalduntzea ez ikusteko soilik norbanakoaren egitekotzat, hizkuntza politika oso bat diseinatzeke, zeinak komunitate baten euskalduntzea, herri baten euskalduntzea izango duen helburu. Konturatu behar dugu, behingoz, hizkuntza normalizazioa eginkizun soziala dela, eta diseinatuko ditugun politikak ez ditugula norbanakoaren baitan egin behar, baizik eta kolektiboa ardatz hartuta. Ahalegin pertsonalak ezdeusak izan daitezke, ikuspegi soziala ez bada lantzen.

Hizkuntzaren normalizazio erreal baterako, behar den lege babesa eratu behar da, lurralde osoan euskara ofizial izatetik abiatuta. Hortik aurrera, Kontseilutik hainbatean azaldua den gisan, honako ezaugarriak izango dituen hizkuntza politika garatu beharra dugu baldin eta benetako normalizaziorako urratsak egin nahi baditugu:

- Epe eta helburu zehatzak dituen hizkuntza politika, bitartekoz hornitua, sail artekoa, gizarteko sektore guztietara iristeko modukoa, Administrazio Nagusitik Toki Administrazioarainokoa, hizkuntza eskubideak

bermatu nahi dituen, Euskal Herriko eremu osoan aplikatzeko modukoa eta ikuspegi osokoa, euskararen erabilera normalizatua helburu duena.

- Osagarritasuna bilatu behar da, herri mugimenduak sortzen dituen proiektuekin indarrak metatzea helburu.
- Administrazio guztien arteko koordinazio organoa eratu behar da, lan bateratua egiteko –ez bera, baina bai bateratua–, eta euskalgintzako eragileekin elkarlan iraunkorrean egin beharko luke lan.

Horixe izan liteke, berria ez den arren, egin daitekeen proposamenik sendo eta osoena, atzera bueltarik izango ez duten urratsak egin nahi baditugu. Norabide horretan jarri ezean, egiten den oro izango da lagungarri urratsak egiteko, galera ez gehiago azkartzeko, baina ez da nahikoa izango. Uste dugu horren jakitun bagarela guztiok, baina ez dugula asmatzen bide hori egiten, izan protagonismo kontuengatik, izan ez garelako elkarrekin lan egiteko gai, izan denok ez dugulako helburua berdin ikusten... Ez dakigu zergatik, baina agerikoa da horrela dela.

Gainera, bide horretan urratsak egiteko tresna garrantzitsua dugu esku artean, 2016an, Donostian, Europa mailako inoizko parte hartzerik zabalena adostu zen Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa –hogeita hamar hizkuntza gutxitu baino gehiagoren alde lan egiten duten ehunetik gora eragile hartu zuten parte–. Hori ez da hizkuntza normalizaziorako plan oso bat, baina bertan jasota daude garatu beharreko elementu nagusienak eta abiapuntu ezin hobea delakoan gaude.

Berriro diogu, gure ustez, eragile politiko, sozioekonomiko eta kulturalen artean osotasunean landuko den hizkuntza politikak izan behar du oinarria, etorkizunean herri euskalduna lortu nahi badugu.

## 2. Partikularrera begira: kapital kulturalaren lanketa

Behin markoa jarrita, zentra gaitzen orain, kapital kulturalaren eremurako proposamen zehatzagoak egiten, plan oso horretan baliagarri izan daitezkeelakoan.

Etorkizunerako irudikatutako komunitatearen kapitalen eszenarioen konstelazioa egiterakoan, euskararen kapital kulturalaren barruan kokatu ditugun aktibo multzoak izan

dira: identitatea –balio partekatua eta eskubide soziala hari lotuta–; kosmobisioa; ondarea; arnasgunea; eta sorkuntza.

Kapital kulturala lantzea dagokigun neurrian, hari dagokion aktibo multzo horietatik abiatuta, lortu nahi dugun egoera lortzeko egin beharreko bidearen gaineko gogoeta edo proposamen sorta izan daiteke honakoa. Kapital multzoak banaka hartu eta bakoitzaren garapenerako proposamenak luzatuko ditugu, eztabaidarako baliagarri izan dadin, guztien artean osatu beharko litzatekeen hizkuntza politikarako plan orokorraren diseinua egiteko orduan.

## 2.1. Identitatea eta balio partekatua

2040rako jomuga horretan identitate eta nortasun ugariko Euskal Herria irudikatu da, hizkuntza ugaritan bizi den jendeak osatutako Euskal Herria, non euskaldunek euren izaerari harrotasunez eutsiko dioten eta beste kulturetatik etorritakoek sentituko duten euskal komunitateko kide izateko euskara dela biderik egokiena eta eraginkorrena. Euskal identitatea euskaraz oinarritutakoa izango da, gizarteko eremu guztietan onartua, horretarako inork bere identitate pertsonala alboratu beharrik izan gabe.

Egoera horretara iritsi nahi badugu, planteatu beharko liratekeen neurrien artean azpimarratuko ditugu zenbait ideia:

- a) Euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa. Ahalik eta eperik laburrenean eta ahalik eta jende gehien euskalduntzea helburu duen politika diseinatu behar dugu, euskara ezagutu eta hura erabiltzeko aukerak sortuko dituena. Ikasitakoa naturaltasunez erabiltzeko aukerak bakarrik ematen baitu harekin gustura sentitu eta hari eusteko aukera. Hezkuntzaren bidez euskara ikastea lortu behar dugu, eta horretarako ditugun bi tresna indartu behar ditugu: hezkuntza arautua eta helduen euskalduntze alfabetatzea.
  - Derrigorrezko hezkuntzaren amaieran euskaraz bizitzeko adinako hizkuntza maila izan behar dute gazteek, eta horretarako ezinbestekoa da ahalik eta azkarren euskaldunduko duen eredu bakarra ezartzea guztientzat, murgiltzean oinarritutako eredu, gaur egungo eredu sistema gaindituta.
  - Helduen euskalduntze alfabetatzeari behar den lekua eman behar zaio. Belaunaldi gazteak euskalduntzea lortu nahi bada, ingurua, tartean helduek osatutakoa

ere, euskalduntzen joatea ezinbestekoa delako. Ezinbestekoa da ahalik eta eperik azkarrenean denek oinarritzko euskara izatea. Helduen euskalduntzerako bitartekoak jarri behar dira, inbertsioak egin euskaltegiek behar dituzten baliabidek izan ditzaten eta euskara ikastea doakoa izan dadin

- b) Bide horretan, garrantzi handikoak dira hedabideak –nagusiki hedabide publikoak, euren egitekoen baitan baitute euskararen sustapena ere–, batez ere ikus-entzunezkoak gaur egungo gizartean, izan ere bereziki inguru ez euskaldunenetan, haiek izan baitaitezke hizkuntza eredu eta hizkuntzaren prestigioaren transmisore nagusienak. Ikus-entzunezkoak izan litezke hizkera eredu zabaltzeko biderik eraginkorrenetakoa, fikzioa eta jendearen parte hartzearen bidez; eta era berean euskal gizartean erreferenteak diren eremu orotako pertsonak beti euskaraz agertzen badira, horrek berak ematen dio garrantzia eta balio handiagoa hizkuntzari, prestigioa alegia.
- c) Publikoak ez diren gainerako euskal hedabideen zabalkundea ere garrantzitsua da, egiten duten ekarpena biderka baitaiteke, gizarte zabalera iristeko aukera handiagoak badituzte. Hedabide horiek lagundu behar dira gutxieneko baldintzak izan ditzaten eta lan bateraturako marko bat ezarri guztien artean euskaraz bizitzeko bidean eta euskal kulturaren zabalkundean lagun dezaten. Garrantzi handikoa da euskaldunari euskarazko eskaintzan ere aukera zabaltzea, denon gustu eta interesak ez baitira berdinak izango, eta aukera bakarrarekin ezinezkoa izango baita denengana iristea.
- d) Inguruko zein urruneko lurralde eta eta kulturetatik datozenak behar bezala hartzea, artatzea oso garrantzitsua da haien jarrera egokia izan dadin euskarara hurbiltzeko. Ezinbestekoa da harrera planak diseinatzea, horren barruan herri honen izaera eta kultura bereziak erakustea, haiena ezagutuaz batera, gureari eutsi nahi diogula erakutsiz eta hasieratik beretik oinarritzko euskalduntze prozesuetara bideratuz, lehen urratsean ulertzeko gaitasuna bereganatzea helburu jarrita. Etorri berrientzat harrera antolatzeaz gain, jada gure artean direnak integratzeko eta

euskalduntzeko planak ere premia handikoa dira, eta gorago aipatuta hezkuntza eta helduen euskalduntzean bereziki landu beharrekoak.

## 2.2. Eskubide soziala

Irudikatutako jomugaren baitan, pertsonen oinarrizko eskubideen artean ditugu hizkuntza eskubideak eta euskaraz bizitzea eskubide sozial izatea dugu helburu, horretarako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko protokoloa indarrean dela.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa iparrorratz hartuta, jadanik lantzen ari den haren Euskal Herriko garapena adostu eta martxan jartzea izango da biderik eraginkorrena, bertan ari baita zehazten Euskal Herrira nola egokitu unibertsala izateko bokazioz sortutakoa, eta Euskal Herrian zein eratako neurri zehatzak hartu. Beste kapital batzuen lanketan gaia bereziki landuko denez, guk ideia nagusi batzuk baino ez ditugu ekarriko:

- Hizkuntzagatik diskriminazio oro gainditu behar da eta horretarako behar diren neurri legalak hartu behar dira. Hizkuntzaren ofizialtasun osoak izan behar du abiapuntu eta Administrazioak ziurtatu behar du euskaraz egindako edozein prozedurak balio juridiko osoa izango duela, eta bitartekoak jarri behar ditu berak euskaraz funtzionatzeko gaitasuna izan eta herritarrei zerbitzua euskaraz emateko.
- Hizkuntza gutxituak lehentasuna izango du hizkuntza ofizial eta nagusiaren aurrean, bereziki komunitate edo herri horretako berezko hizkuntza denean.
- Euskaraz ikasteko aukera izan behar du herritar orok, eta ikasketa prozesuaren amaieran ezagutza bermatu behar da. Euskara doan ikasteko aukera eta eskubidea beharko luke izan, gainera.
- Euskarak komunikazio sistema osoa behar du, herritar orok bere hizkuntzan informatu eta komunikatzeko eskubidea izan dezan. Era guztietako hedabide sare indartsua izatea garrantzi handikoa litzateke, eremu guztietara iritsi ahal izateko.
- Hizkuntza gutxituko kultura garatzeko neurriak hartu behar dira, eta jende guztiarentzat eskuragarri egin dadin baliabideak jarri.

## 2.3. Kosmobisioa eta ondarea

Bizi indar izateaz gain, hizkuntza ondare gisa hartuta, haren ikerketarako aukerak izatea gizartearen oro har, bereziki hezkuntzako langileak eta kultur eragileak haren transmisore izatea lortu nahi da, betiere euskal kosmobisio propioa kontuan hartuta, baina kultur aniztasuna helburu izanik. Euskal kulturak berarekin dakarren izaera propio hori kontuan hartzeak ez du esan nahi gainerakoak baztertu behar direnik; are gehiago, propiotik abiatuta, gai izan beharko genuke kultur aniztasuneko eremu batean, bertakoa galdu gabe, besteak onartzeko, eta besteekin sartzeko.

Horri begira planteatu daitezkeen neurri motak izan daitezke:

- Hizkuntzaren ikaskuntza kulturala azkartzea, ezagutza linguistikotik harago doan ezagutza lortu ezean, zaila da gutxitua den hizkuntza baterako erabilerarako interesa bideratzea.
- Hizkuntzaren transmisioan eta sozializazioan eraginik handiena duten eragileen irakasleak, hedabideetako langileak, ikus-entzunezkoetako sortzaileak eta langileak...– prestakuntzan bereziki inbertitzea.
- Kultur aniztasunean inbertitzea, Euskal Herrian kokatuz doazen inguruko herrietako kulturetakoak ulertu eta onartzea helburu, eta haiek ere euskal kultuaren parte sentitzen joan daitezkeen, euskara ikasi, euskaraz bizi eta euskal kulturaren parte hartzeko.
- Euskal kultur ondare inmateriala bildu eta transmititzea helburu izango duten egiturak martxan jartzea edo daudenak indartzea, euskal sormenari prestigioa emanaz: euskal liburutegi nazionala, euskal kultur ondarearen zaintza eta transmisiorako erakundeak oro har.

## 2.4. Arnasgunea

Udalerrri euskaldunak herri biziak izan eta euskararen arnagune ez ezik euskararen indargune ere izan eta euskara zabaltzeko gune izatea aurreikusi da, kontua ez baita euskararen “gordeleku” izatea, baizik eta euskalduntze prozesuaren motor nagusietakoak izatea. Hori lortzeko bidean, udalerrri euskaldunen garapen jasagarria bideratuko duten politikak behar dira, garapena bere osotasunean kontuan

hartuta, herri euskaldunak izateaz gain, herri euskaldunak eta biziguneak izan behar baitute, non euskaraz bizitzea garrantzitsua izango den, baina horretarako egokitasunez bizitzeko aukera izatea ezinbestekoa den, maila ekonomiko, sozial eta kulturalean –lana, eskola, zerbitzuak, kultur eskaintza... bizitzeko oinarriak direnak eskura izan behar dira–.

Bideratu beharreko neurrien proposamena:

- a) Egingo diren etxegintza eta urbanizazio lanak hizkuntza kontuan hartuta egitea. Herri bizigarriak egin, handitzeko aukerak sortu, betiere handitzearen bidez euskara arriskuan jar dezaketen neurriak baztertuaz.
- b) Herritar berriak izan daitezkeen neurrian, arnagunean integratu, euskaldundu eta arnaguneen balioaz kontzientzia hartzerako bideratutako ekimenak.
- c) Hezkuntza zein kulturaren garapena eta transmisioa herrian bertan zein eskualdean egiteko aukera izateko baliabideak jarri behar dira.
- d) Arnaguneetan bizi direnak ez direnez mugatuko herrira lanera, eskolara eta zerbitzuetara jotzen dutenean, arnaguneen inguruko herri nagusietan haiek kontuan hartuta garatu beharko lituzkete beren erabakiak, hizkuntza etengabeko irizpide izanik edozein neurri hartzeko orduan. Gutxienez, eskualde mailako politiketan pentsatu beharra dago.
- e) Arnaguneak indargune eta akuilu izan behar badute, beharrezkoa da bertako biztanleengan kontzientzia sortzea, hura transmititzeko gai izan daitezen eta sustatzaile izan daitezen, inguruko pertsonen eta ingurua beraren euskalduntzea bultzatu eta laguntzeko.

## 2.5. Sorkuntza

Irudikatutako jomugaren arabera, euskararen mundu sinbolikoa balioan jarri den herrian kultur sorkuntza oparoa, ugaria eta plurala dugu, zeinaren aktibo nagusietakoa emakumea den, edo, hobeto esanda, lehendik ere agerikoa zen emakumeen aktiboa aintzatetsi egin den. Sorkuntza oparo horrek hartzaileak ere erakarri ditu eta kultur sistema oso baterako oinarriak jarri dira, sortzailea, industria eta hartzailea sistema gisa egituratzen joan dadin. Euskal kulturaren adierazpide guztiek dute duintasuneko tratamendua eremu

guztietan eta sortzaileek ere bai, onartu baitaie azken horiei izaera propioa emango dien estatusa.

Era horretan laburbil dezakegun eszenarioa lortzeko, era honetako oinarriak planteatzea egokia izan daiteke:

- a) Euskal kulturari zentraltasuna eman behar zaio gizarte politika guztietan, euskal kulturaren sustapena ez baitago bakarrik kultur eragileen esku, herri eginkizuna da, bai Euskal Herrian bertan erdigunera eramateko, bai Euskal Herritik kanpo zabaltzeko ere.
- b) Euskal kulturaren ezagutza eta sormena garatzera bideratutako curriculumak izatea Hezkuntzan oinarri, abiapuntu Euskal Curriculumak hartuta.
- c) Euskal kulturaren sormena, zabalkundea eta transmisioa helburu izango dituen kultur politika adostu eta gauzatzea. Hizkuntzaren normalizazioak hizkuntza politika oso bat behar duen bezala, euskal kulturak alde guztien artean landu eta adostutako kultur politika osoa behar du.
- d) Euskal kultur industria indartzera begirako politikak egin, sistema eta egitura osoa eraikitzea helburu hartuta, horixe baita bide bakarra diru laguntzen baitan eroriko ez diren egiturak izateko.
- e) Euskal kulturaren zabalkundea eta transmisioa egiteko nagusien artean izango duten hedabideak egokitzea garrantzi handikoa da, hedabideen askotariko izaera kontuan hartuta. Bereziki landu beharko litzateke hori hedabide publikoen aldetik
- f) Euskal kultura sortzaileentzako estatutua sortzea, haien baldintza propioak kontuan hartuz.
- g) Euskal kultur sortzaileen eta euskal kultuaren hobekuntzara egokitutako egile eskubideen politika adostu eta ezarri behar da horretan zer esana duten eragile guztien artean.
- h) Euskal kultura ikusgarri egiteko diskriminazio positiboko neurriak hedabide eta programazioari begira; emakumeen sormenari leku berezia eginez.

Kapital kulturalean irudikatu diren aktibo (baliabide) nagusiak hartu eta haiek lortze aldera planteatu daitezkeen neurri batzuk baino ez dira proposatu idatzi honen bigarren atalean, betiere

hizkuntza politika oso eta orokor horren diseinurako lanketan baliagarri izan daitezkeelakoan. Aurretik esan dugun gisan, osotasuna kontuan hartuko duen plan orokor baten barruan bakarrik izango lirateke eraginkorrek planteatzen daitezkeen neurriak, eta oso mugatuak, aldiz, neurri horietako bakoitza modu isolatuan hartuta.

---

## Oharrak

---

1. Euskal Herriaren banaketa administratiboak ez du laguntzen orain arteko lanaren balorazio orokorra egiten. Euskalgintzako eragile askoren ekimenari esker egin da urteetan aurrera, ez beti administrazioaren laguntzarekin, eta eremu batzuetan, bereziki, administrazio eta eragile politiko zenbaiten kontrako jarrera eta oztupo handiekin. Ez dezagun ahaztu euskara oraindik ez dela ofiziala lurralde osoan, eta ugariak izan direla hura desagerraraztea helburu hartuta diseinatutako politikak. Badirudi beste garai politikoa bizi dugula, eta baliatu beharko genuke unea, indarrak bilduz, bakoitzak bere eginkizuna izanik, denok norabide berean lanean jartzeko.
2. Ez litzateke zuzena izango esatea horretaz orain konturatu garenik. Urteetan nabarmendu da oker hori batez ere helduen euskalduntze alfabetatzean eta lan munduaren euskalduntzean aritu izan direnen artean. Behin eta berriz nabarmendu izan da euskaraz ikasten zuten gazte horiek, gero, ez zutela aukerarik euskaraz bizitzeko, familia, lagunartea edo lantokia euskaraz bizi ez ziren neurrian.